



SANTIXABELAK  
**2024**  
*geligarri berezia*



# Bidaiatu Konpainia onean.



Tel.: +34 943 36 32 90  
[www.autocares-aizpurua.es](http://www.autocares-aizpurua.es)

AUTOBUSAK  
*Aizpurua*



DISEINU  
GRAFIKOA



INPRENTA  
OFFSET ETA DIGITALA



DISEINU  
EDITORIALA

**antza**  
KOMUNIKAZIO GRAFIKOA

# GORA SANTIXABELAK

Zirkuitu Ibilbidea 2 · 1-2 pabilioiak · LASARTE - ORIA

📞 943 370 738

✉ [info@antza.eus](mailto:info@antza.eus)

🌐 [www.antza.eus](http://www.antza.eus)



## JAIETAKO ZAPIA LEPOAN

A biatzear ditugun festetarako kontuan hartu beharreko zenbait ohar segidan. Batetik, ez ezazue ahaztu, soinean ere jai giro betean izango garelako oroitaraztea. Horretarako, Jai Batzordeak koadrodun zapia lepoaren bueltan jantzi eta ospakizunotan murgiltzeko deialdia egin du.

### Feriaguneko prezio bereziak

Interesdunei aski ezaguna egingo zaien arren, badaezpadako oharra. Anbulatorio pareko aparkalekuan kokatuko den ferriaguneko prezio bereziak aplikatuko dituzte, ohi bezala, festetako bi egunetan; batetik, uztaillaren 1eko Umeen Egunean eta, azkenik, Santixabelak amaitu eta biharamunean, uztaillaren 3an.



Barraketan prezio bereziak ipiniko dituzte uztaillaren 1ean eta uztaillaren 3an.

# SANTIXABELAK

ekainak 27- uztaillak 2

## SANTIXABELEKO MENUA

Urdaiazpiko iberikoa  
Artzabal entsalada  
Otarraixkak plantxan

**AUKERAN:**  
Haragiak edo Arrainak

Gazta Tarta  
Edaria aparte

# 29,90€

**ARTZABAL**  
BASERRIA · JAIETXEA

PUNTAPAZ 1, USURBEL 943 36 91 31 ARTZABALJAIETXEA.EUS

**ONDO PASA  
JAIETAN!**

**G15** GIPUZKOA  
HIGIEZINA  
ELKARTEA



HIGIEZINA | INMOBILIARIA

**5. URTEURRENA!**

MILA ESKER ZUEN KONFIDANTZAGATIKI

**SALEROSKETA & ALOKAIKURAK**

Zugandik GERTU behar duzun GUZTIRAKO

688 739 733 info@g15usurbil.eus  
Etxebeste Kalea 15 - USURBIL

**Iñaki  
Iturgintza**

*Ondo pasa  
festetan!!!*

- BEROKUNTZA • GASA
- AIRE EGOKITUA  
ZORU BERO-EMALEA
- ITURGINTZA
- ENERGIA BERRIZTAGARRIAK

**600 024 825**

info@inakiliturgintza.com--www.inakiliturgintza.com

**mur**  
errotuluak

*Ondo pasa Santixabeletan!!*

**Ibilgailuak - Erakustokiak - Lonak  
Argidunak - Inpresio digitala**

**943 36 60 21 - USURBIL**  
puntapax kalea 6 A-B

info@murerrotuluak.com - www.murerrotuluak.com

**ZENDOIAENEA**  
taberna

*Ondo pasa  
Santixabeletan!*



**NAGUSIA 35, USURBIL**

## GAZTE EGITARAU OPARO ETA “ELEGANTEA”

U surbilgo gazte mugimenduak eskaintza oparoa iragarri du hastear diren festa hauetarako. Ostiraleko gazte txupinazoarekin ireki-ko duten Mikel Laboa plazako txosnagunea izango dute topalekua. Musikaz blaitutako gauekin batera, bi ospakizun egun izango dituzte festa hauek; bate-tik, hilaren 28ko oilasko biltzaileena eta uztailaren 1eko Gazte Eguna, mojitada, aurrez txartelak eskuratzea beharrezko izango duen bazkari eta bazkaloste musikatuarekin. Jan-edanik ez da faltako paella lehiaketarekin edota poteo elegantearekin. “Dirurik gabe baina elegante!” aldarripean egingo den igan-deko hitzordu horretan, “argazkitxokoa” egongo dela iragarri dute, txanpain topa txosnetan eta sari banaketa.



Gazte txupinazoa Mikel Laboa plazako txosnagunean izango da, ostiral honetan, arratsaldeko 20:00etan.

# 1.000

ALEA

**UZTAILAK 18, OSTEGUNA | Aginagako eliza zaharra**

Sarrerak: [usurbilkultura.eus](http://usurbilkultura.eus) | 6 euro (bazkideek 4 euro, NOAUA!ko egoitzan)

**19:00 1.000. Alea ospatzeko ekitaldia**

**19:30 Maialen Lujanbio**

eRRe(AH)ala ikuskizuna



ANTOLATZAILEA





ATEZAIN EDO BIDEOATEZAIN DIGITALAK  
OBRARIK GABE!



6855 zenb. telekomunikabide erregistroan  
elkano kalea 13 HERNANI 943 55 33 99 - 629 12 13 55

# Rafa

iturgindegia



- Iturgin lan orokorrak
- Dutzako manparak
- Konfidantzazko gremioak
- Komuneko altzariak

**670 98 68 48**

Borda berri kalea 1, behea USURBIL



# Goieko

GOI MAILAKO EKOLOGIA

943 634 536 [www.goieko.com](http://www.goieko.com)

# ELKAR ZAINTZARAKO JAIAK

Zaintza ardatz izango duten festak datozkigu aurtengoan. Aurreko urteetan hasitako bidean sakontzeko egunak izango dira honako hauek; elkarren zaintza sustatuko duten jaiak.

Horren ispilu izango da festen hasiera ekitaldia. Iragan astean, Jai Batzordeak estreinakoz jendaurrean eginiko Santixabelen aurkezpenean aipatu bilguneko kide eta Usurbilgo zaintza ekosistema berria eraikitzeko eragiten ari diren lan taldeetako bateko, zaintza komunitarioko kide den Itziar Illaramendik aurreratu zuenez, adineko emakume zaintzaileek izango dute ostiral honetan, arratsaldeko 19:00etan udaletxeko balkoitik Santixabele txupinazoa jaurtitzeko ohorea. Herrian “badugu emakume multzo handi bat denok ezagutzen duguna, bere bizitza osoan zaintza lanetan ibili direnak, lan hauetan ezin baita jubilatatu. Ardura honetan jarraitzen dute eta ahal dutena arte iraungo dute”.

Azken urteotako ildoari jarraiki, ate joka ditugun jai hauek ere “zaintzaileak izan daitezela” dute xede. Bat egiten du herri hau zaintza ekosistema berri bat eraikitzeko urteotan egiten ari den lanke-ta prozesuarekin. Herri honen misioetako bat da, “Usurbil herri zaintzailea bihurtzea”, Illaramendik gogorarazi zuenez. Zalantzarik gabe, “bidea luzea eta ez erra-



**“Gora Usurbilgo adineko emakume zaintzaileak!”**

**“Herrian badugu emakume multzo handi bat denok ezagutzen duguna, bere bizitza osoan zaintza lanetan ibili direnak, lan hauetan ezin baita jubilatatu”.**

za, sistema osoa aldatzea eskatzen du eta baita guk herritarrok ere zabaltzea gure begirada”.

Izan ere, Illaramendik jaien aurkezpen ekitaldian nabarmendu zuenez, “zaintza, hitz potoloa, elementu transbertsala da. Guztioi interpelatzen gaitu, gizakiok erlazionalak baikara, elkarren beharra baitauekagu”. Urte garai honetan, bere esane-

tan, “jai zaintzaileak aldarrikatzea tokatu zaigu”. Testuinguru horretan, “aurten txupinazoa adineko emakume zaintzaileei eskaini zaio”.

Omendu egingo ditu herri honek, zailantza izpirik gabe, “merezi dutelako. Gora Usurbilgo adineko emakume zaintzaileak!”, goraipatu zituen Illaramendik, bertaraturikoen txalo artean.

## AHO BATEZ ONARTURIKO PROPOSAMENA

Txupinazo jaurtitzaileon hautaketa, ekarpenak biltzeko aurreko hilabeteotan eginiko deialdi irekitik dator. 74 boto eta 25 proposamen bildu ziren deitzaileek email bidez nahiz udal instalakuntza hainbatetan jarritako kutxetan. Jasotako proposamenekin argi izan zuten; aho batez erabaki zuten

adineko emakume zaintzaileak izatea jaiak abiaraziko zituztenak.

Ekitaldiak ere herri zaintzailearen ispilu izateko apustu horretan, adibide moduan, ospakizun egunotan izango ditugun beste zenbait hitzordu ere xehatu zituen Jai Batzordeak agerraldi hartan. Iaz bezala, aurten uz-

tailaren 1erako iragarri duten Haurren Eguneko ekimenen artean, txutxu tren arrakastatsuan herri erdigune inguruari itzulia emateko aukera izango da. Ordu tarte bat (10:30-11:30 artean) eguneko arreta zerbitzuko eta eguneko zentroko erabiltzaileentzat erreserbatua egongo da.



# “LANEAN GABILTZA FESTAK GUZTIONTZAKO ESPAZIO SEGURUAK IZAN DAITEZEN”

Ate joka ditugun datozen herriko festen eremua espazio segurua izan dadin, zaintzadun espazioa, lanean dihardu Usurbilgo Jai Batzordeak estreinakoz ekainaren 17an egindako aurkezpen ekitaldian zehar jakinarazi zuenez. “Lanean gabiltza festak guztiontzako espazio segurua izan daitezten”.

Halere, gogorarazi dutenez, “hau ez da gure ardura bakarrik, herritar zein festen parte izango den pertsona ororen ardura ere bada. Beraz, jarrera inbasibo, erasokor edo bestelakorik ikusiz gero, ez begiratu beste aldera, ez izan konplize. Baina batez ere zure ardura da, denaren gainetik eta beste pertsona kontuan hartu gabe, edozer egiteko bosterea sentitzen duenarena. Ez dugu gure festetan egoterik nahi, beraz, ez badakizu egoten ez etorri”.

## Bi baliabide

Erasorik gabeko Usurbilgo jaien aldeko lanketa bideratzen ari dira beste urte batez. Arreta puntua eta informazio gune bat kokatuko dute datozen festetan. Emagin elkartearen eskutik hain zuzen, “Gaztelekuan arreta puntua egongo da, jaietan gertatzen diren edozein intentsitateko eraso matxisten aurrean, eraso jasan duenari aurrez aurreko arreta emozionala zein bidelaguntza eskaintzeko”. Jaietako bi



**“Hau ez da gure ardura bakarrik, pertsona ororen ardura ere bada”**

Jai Batzordeak arreta puntua eta informazio gune bat kokatuko ditu festetan, Emagin elkartearen eskutik hain zuzen.

gauetan eskainiko da zerbitzu hau; ekainaren 28an, ostiralean, 22:00-3:00 artean eta biharamunean, hilaren 29an, larunbatez, 23:00-6:00 artean”.

Horrez gain, “Mikel Laboa plazan ere informazio gune bat egongo da, herritar oro indarkeria matxistaz kontzientziatzeko helburu duena”; ekainaren 29ko gau partean. Baliabideon harira, Usurbilgo

mugimendu feministak gogorarazi duenez, “urte luzez goaz esaten, aurten ere egin dugu, eta beharbada beste mila aldiz ere esango dugu: ez dugu inolako eraso sexistak, matxista, homofobo, transfobo edo arrazistarik onartuko. Antolatuta gaudete eta erantzun egingo dugu. Borrokan jarraituko dugu kaleak eta gauak ere gureak izan arte”.

## “1371-1971 USURBIL” BIDEO PROIEKZIOA

Estreinakoz, “1371-1971 Usurbil villa bezala hasi zenetik 600 urte” bideo proiektzioa iragarri dute ekainaren 27rako Sutegin.

Gogoan izango duzue, Usurbilek 2021. urtean hiribildu izaera eskuratu zuenetik 650 urte bete zirela. 50 urte lehenago, 600. urtemuga bete zuen

1971n. Urteurren haren harira eginko ospakizunak dira ikus-entzunezko honetan grabatu zirenak. Guztia koloretan. 48 bat minutuko iraupena duen emanaldian zehar, “haur talde bat ikusten da herrian barrena txistua eta danborra jotzen”. Kalejiran doaz handik udaletxerantz, ekitaldi honen ohorezko

monumentua inauguratzera.

### Bi proiektzio Sutegin

Ekainaren 27an Sutegin ikusi ahalko duzuenaren aurrerapentxoia da. Proiektzio bikoitza iragarri dute kultur-etxe auditorioan; lehenbiziko emanaldia 17:00etan, bigarrena 19:00etan.

## 'HAREMAN' EGITASMOKOAK, SOKADANTZAN

Jatorri ezberdinetako herrikideak hartuemanetan jartzen dituen egitasmoak festetako plaza hartuko du egunotan. Usurbilgo Udalak Zabalduz kooperatibarekin aurten abian jarritako egitasmoak ekitaldietako batean parte hartze zuzena izango du.

Izan ere, Santixabel egunez udal ordezkariak soka-dantza eskaintzen diote herriari. Urtero talde bat gonbidatzen dute; aurten, herrian bizi eta herrira bizitzera etorri direnen arteko elkar eza-gutza eta hartueman sarea eraikitzea ahalbidetzen duen HarEman egitasmoan parte hartzen ari direnak izango dituzte alboan. Sorterrien Usurbil irudikatuko dute beraz, denen artean, uztailearen 2an, eguerdiko 12:00etan hasita, udale-txe aurreko plazan.



Santixabel egunez udal ordezkariak soka-dantza eskaintzen diote herriari. Aurtengoan, HarEman egitasmoan parte hartzen ari direnak izango dituzte alboan.



*Ane*  
ILEAPAINDEGIA

*Artzabal*

JUBILATUENTZAKO  
AUKERARIK  
HOBERENA


ARTZABAL BASERRIA 688 75 96 96



**EROSKI**  
city

*Santixabel zoriontsuak opa  
dizkizuegu!*

Kale Nagusia 10, USURBIL  
Tel. 943 36 11 82



**PELLO  
ARRANDEGIA**  
ASTEARTETIK LARUNBATERA  
8:30 - 13:30

650 31 31 91 Puntapax 7, Usurbil

**ONDO PASA SANTIXABELETAN!**

# Uraitz, s.l.

*Ondo pasa  
Santixabeletan!!*



**Igeltseritza  
Orokorra**

Telefona

**693 05 93 92  
943 56 66 40**

[uraitz@uraitz.com](mailto:uraitz@uraitz.com)  
Geltoki Kalea 15, URAITZ OFIZINA, LASARTE-ORIA

# ANE IBARGOEN: “EZ DIOT INOIZ ESKUZ MARRAZTEARI UTZIKO”

Ane Ibargoien Alvarez herritarrak irabazi du aurtengo Santixabeletako egitarau diseinu lehiaketa. Egitaraua diseinatzeaz gain, formatu digitalean ere promozio-bideo bat prestatu du aurtengo jaietarako.

**NOAUA! Jaietako egitarauak zuk egindako diseinua du lehiaketa irabazita. Nondik hartu zenuen ideia?**

**Ane Ibargoien:** Proiektu bakoitzean horixe izaten da nire arazorik handiena, ideiak nondik hartu. Eskaera batetik sortzen denean proiektua, zuzenean adierazten didate egin beharrekoa, baina lehiaketetan zerotik hasi behar izaten da pentsatzen. Herriko irudietan oinarritu naiz egitarauaren diseinua sortzeko, denok umetatik “parke berria” izenez ezagutzen dugun parke horren inguruan dauden irudietan, hain zuzen ere. Irudi horien artean, festekin lotutakoak hautatu ditut proiektu honetarako. Herria bera izan da oinarria.

**Jaietako egitaraua herriaren aurrean aurkeztu zuten. Zu ere bertan izan zinen, ezta?** Gonbidapena luzatu zidaten aurkezpen horretara hurbiltzeko. Herri kirolak egingo dituztenak, oilasko biltzaileak... Horiek denak gonbidatu zituztela esan zidaten eta halako ikuskizun moduko bat aurreikusitako zutela, oso aurkezpen koloretsua. Ekitaldi berezia prestatu zuten egitaraua aurkezteko eta bertan jendeak aukera izan zuen diseinua ezagutzeko ere.

**Nola landu zenuen? Eskuz marraztu ohi duzu edo ordenagailuarekin aritzen zara?**

Orain arte dena eskuz egitekoa izan naiz, baina orain animazioan sartuta nago eta tabletarekin lan egitera ohitzen ari naiz. Lehiaketan izena ematea erabaki nuen, tablet berria erosi nuen eta aukera



**“Herriko irudietan oinarritu naiz egitarauaren diseinua egiteko”**

**“Orain arte dena eskuz egitekoa izan naiz, baina orain animazioan sartuta nago eta tabletarekin lan egitera ohitzen ari naiz”.**

bikaina izan zen egitarauarena tableta estreinatzeko. Lankideek gomendatutako programa batekin hasi naiz lanean eta lehiaketa aprobetxatu dut pixka bat ezagutzen hasteko eta lan metodo berri hori erabiltzeko.

**Aukeran nola aritzen zara gusturago, eskuz ala tabletarekin?**

Ez diot inoiz eskuz marrazteari utziko, baina onartu beharra daukat tabletean lan egiteak asko errazten dituela gauzak. Horren bidez, bideo promozional bat ere sortu dut egitaraua pantailetara eramateko.

**Mugikor bidez egoki ikusteko formatua da hori, ezta?**

Bai, egitaraua modu digitalean jasotzeko bideotxo bat da sare sozialetan edota whatsapp eta bestelakoetan partekatu

eta aldean eraman ahal izateko. Ez dakit oso egoki ikusteko formatua den. Bideo labur bat da eta bertan egitaraua ikusten da, baina segundu gutxian. Beraz, egitaraua lasai hartu eta aztertu nahi duenarentzat ez da aukerarik egokiena. Bideoa gelditu egin beharko du egitaraua lasai irakurri ahal izateko. Lehiaketara egitarauaren diseinua aurkeztu nuen, oraindik bukatu gabe neukan bideoa, baina aipatu egin nien zein zen ideia eta hasita ere banekala ikusi nahi bazuten ere. Interesatzen zitzaizela esan zidaten eta behin lehiaketa irabazi ostean amaitzeko aukera izan dut.

Kontua da nik irudiak lantzen ditudala, baina soinuari buruz ez daukat ideiarik ere. Beraz, ni egitarauaren inguruko bideoaren irudiaz arduratu naiz eta musika eta soinua jartzeaz lehiaketa antolatzaileak arduratu dira.

## “GARRANTZITSUA DA EGITARAUAREN FORMATUA SINPLEA IZATEA”

**NOAUA! Ohiko koloreetatik aldentzen dela eta argia dela, horrela justifikatu dute epaimahaiko kideek zure lana irabazletzat hartzeko. Nola landu dituzu koloreak?**

**Ane Ibargoien:** Koloreak hautatzea izaten da proiektuetan gehien kostatzen zaidan beste elementua. Paleta aukera zabala izaten da, eta normalean, bat hautatzen dut gaiaren arabera eta horiekin jolasten naiz. Argiaren kontuan, ordea, izan ditut nire zalantzak. Lagun batekin hizketan aritu nintzen gaiari buruz eta hark azpimarratu zidan oso garrantzitsua dela egitarauaren formatua sinplea izatea denek ondo ulertu ahal izateko. Bi aldiz aurkeztu naiz lehiaketara eta aurreko aldian modu berezian tolesten zen diseinua aurkeztu nuen eta dirudienez, halakoak ez dira aukerarik onena. Oraingo honetan argia izaten saiatu naiz eta badirudi horrek fruitua eman duela. Aurreko aldian aurkeztu nuen formatu berezia, pertso-

nalki, ikaragarri gustatu zitzaidan, baina ulergarria izan behar badu sinpleagoa izan behar.

**Beste lau lan ere aurkeztu ziren. Haiek ikus-  
teko aukera izan duzu?**

Ez, ez nekien zenbat aurkeztu ginen ere. Lana entregatzeko epearekin ere kome-riak izan nituen. Lanez gainezka nen-bilen eta udaletxera joateko denborarik gabe nenbilenez, beste pertsona bat joan zen nire lana entregatzera. Udaletxean esan zien nik neuk entregatu behar nuela, baina azke-  
nean lortu zuen entre-  
gatzea arazoa aipatu ondoren. Epemugatik oso gertu zegoen eta entregatzen utzi izan ez bazioten ez dakit nola ibiliko nintzen aurkeztu ahal izateko.



**“Koloreak  
hautatzea  
izaten da  
gehien  
kostatzen  
zaidana”**

Bi aldiz aurkeztu da lehiaketara. Aurtengoan izan da bere lana hautatua.

## “ANIMAZIO ESTUDIO BATEAN NABIL LANEAN URTARRILETIK”

**NOAUA! Ofizioaz arkitektoa zara, ezta?**

**Ane Ibargoien:** Bai, arkitekto lanetan nabil eta ilustrazio zein animazio arloan. Animazio estudio batean nabil lanean urtarriletik. Oso lantalde txikia gara, bost bat laguneko. Zinemaldian Sultanas Film pelikula eta animaziozko film bakarra izan da orain arte Urrezko Maskorra eskuratzen. Pelikula horretatik estudioa sortu dute fama eta ongietorri beroa jaso duelako pelikulak. Laburme-

traia txikiak aritu gara egiten orain arte, baina luze batekin hastekoak gara laster. Bi urtetarako proiektua da printzipioz. Euskal Herrian oso jende gutxi dago horrelako lanak egiten dituen eta aukera ona da animazioa gustuko dutenentzat. Lantxo txikiak egiten ari gara eta horietako asko lehiaketetara ari dira aurkeztzen eta horien bidez finantzaketa lortzen ari gara. Hala lortu dugu film luzea egiteko finantzaketa ere. Zinemaldiko film hori ere pro-

mozionatzen ari gara leku askotan eta, modu horretara, diru laguntzak eskuratu eta proiektu berriak egiten ari gara.

Arkitekturan ere obretan sartuta nabil. Modu independentean egiten dut lan arlo horretan. Azken aldia oso lanpetuta nabil eta lehiaketetan parte hartzeko denbora gutxiagorekin nabil. Egitarauaren diseinuarena izan da azken urtean parte hartu dudana lehiaketa bakarra eta irabaztea lortu dut.

# ZIRRIBORRO TAILERREKO IKASLEEN LANAK ERAKUSKETA BATEAN IKUSGAI

Susana Martinen gidaritzapean Zirriborro tailerreko ikasleen lanak ikusgai jarriko dituzte Sutegiko erakusketa gelan jaietako egun guztietan. 12:00-14:00 egongo da irekita goizez eta 18:00-20:00 arratsaldez.

## Marrazki ugari

Ikasturtean zehar egindako lanak jarriko dituzte ikasleek ikusgai eskulanak eta pinturarekin egindako denetariko marrazki, lan eta koadroak. Aurtengoan artista txiki asko izan dituzte tailerrean, eta beraz, marrazkiek izango dute protagonismo gehiago koadroek baino. Erakusketa zaintzeaz irakaslea bera arduratuko da, baina txanda batzuetan ikasleak ere bertan izango dira lanak zain-tzen.

**“Aurten  
artista gazte  
asko izan dituzte  
Zirriborro  
tailerrean”**



Erakusketak ordutegi hau izango du: 12:00-14:00 goizez, 18:00-20:00 arratsaldez.

## EKAINAREN 28AN, KOLORE FESTA ARTZABALEN

Ohi bezala, Kolore Festa osatuko dute gaztetxo artista eta margolarien guraso talde baten eskutik jaien lehenengo egunerako. Ekainaren 28an ostirala, arratsaldeko 16:00etan Artzabalen. Ondoren, 18:00etan Kolore Festako opari banaketa egingo dute. Susana Martinek antolatzen zuen pandemia bitarte, baina, egun, antolaketaren pisua guraso talde batek hartu du. Pinturez gozatzeko aukera ederra izango da arratsalde osoan zehar.



Kolore Festa arratsaldeko 16:00etan hasiko da eta opari banaketa 18:00etan egingo da.

## HAURREN EGUN BAT... ETA GEHIAGO

Festen azken txanpan aurren, haurrei eskainitako eguna. Uztailaren 1ean, astelehenez, goizean hasi eta arratsaldera arte luzatuko da gaztetxoaren egun hau. Goiz partean, adin tartearen araberrako ginkana, erronka eta puzgariak iragarri dituzte, herrian barrena ibiliko den txutxu trenarekin batera. Ekimenotarako izen ematea ekainaren 19an itxi zuten. Goizeko ekintzen ondotik, norberak eramandako bazkaria lagun artean dastatzeko aukera izango da. Jaiak arratsaldean segiko du, Artzabalgo ur puzgarietan edota askari ezin gozoagoarekin; txokolate janarekin. Uztailaren 1etik haratagokoak izango dira etxeko txikienei zuzenduriko ekimenak; buruhandi edota puzgariak egun gehiagotan izango dira eta.



Uztailaren 1ean astelehena, Bordatxo aurretik abiatuko da txutxu tren. Goizez, 11:30etik 13:30era; Eta arratsaldez, 15:30etik 17:30era.

**MIKEL  
ARRAINDEGIA**

MIKEL ARRANDEGIA

**Ondo pasa  
Santixabelak!**

San Inazio, 1 • ☎ 943 366 356

**TXIRIBOGA  
TABERNA**

**SANTIXABEL FESTETAN:**  
(Ostiral gauetik astearte eguerdira)

**MENU BEREZIAK AUKERAN:**

45€      47€      49€

Ondo pasa  
Santixabeletan!

**943 21 88 40**  
IRAZU KALEA 6, USURBIL

## “MUSIKA GOIZETIK GAUERA”

Usurbilgo Jai Batzordeak aurtengo festak aurkezteko egindako agerrian iragarri zuenez, abiatzear ditugun herriko festa hauetan, “egunero musika izango dugu goizetik gauera”, hein batean, herriko taldeen eskutik.

Gaueko batean adibidez, herriko be-launaldi ezberdinetako musikariak igoko dira txosnetako oholtzara Bertsio Gauean parte hartzeko. Amebak ere kontzertua eta Fanfarrikant Brass Band taldea sortu berriak ere kalejira iragarri du. Gainerakoan, erromeria giroa izango dugu Laket, Tapia eta Leturia eta Itzal taldekoen eskutik; Puro Relajo ere bueltan izango dugu. Dupla, Neallta Fola, Ziztada&Rlantz taldeek edota Dj-ek osatuko dute, besteak beste, hainbat txarangekin batera, festa hauetako musika hitzorduen eskaintza.



Tapia eta Leturia Band taldea uztailaren 1ean arituko da, iluntzeko 20:00etan frontoian.

*Elexpe*  
Hiztasunak

- BETILEEN TINTAKETA
- BETILEEN PERMANENTEA
- ESTETIKA
- TATUAIK
- ZUTIKAKO ETA
- ETZANDAKO SOLARIUM-A



MUNA LURRA 12. USURBIL - 943 370 462



# URDAINTZI

eraikuntzak



649 43 54 75

943 36 72 64

ERAIKUNTZAK

OBRAK

BERRITZE LANAK

[urdaintzi@euskalnet.net](mailto:urdaintzi@euskalnet.net)

IT-ak egiten  
dira

*Ondo pasa  
Santixabeletan!*

*Ondo pasa  
Santixabeletan!*

# ARANKA

BERRIKUNTZAK

- Fatxaden estaldurak ·Estalkien berriztatzeak
- Barruko berrikuntzak ·Gremioen koordinaketa
- Igeltseritza orokorra

Tel: 606 37 21 05 USURBIL [info@arankaberrikuntzak.com](mailto:info@arankaberrikuntzak.com)

# PILOTA ETA PALA TXAPELKETEN FINALAK

**U**surbilgo 51. Pilota Txapelketa azken txanpari begira da jada. Erabakia dago honenbestez, nortzuk izango diren Santixabel egunez, arratsaldeko 17:00etan hasita frontoian lehiatuko diren finaletan parte hartuko duten kadeteen eta seniorren mailako pilotariak.

Ekainak 15 larunbata

Kadeteak:

Zazpi iturri (Gorostidi-Olano) 22

Pagazpe 2 (Aburuza-Errasti) 3

Seniorrak:

Landa-Aranguren 13

Txoperena-Urruzola 22



Kadete zein senior mailetako finalak uztailaren 2an jokatuko dira, arratsaldeko 17:00etan.

## **Usurbilgo 51. Pilota Txapelketa**

**Finalaurrekoetako emaitzak**

Ekainak 14 ostirala

Kadeteak:

Pagazpe 1 (Alejo-Pagola) 19

Lapke (Landa-Munduata) 22

**Finalak**

Uztailak 2, asteartea, 17:00etan

Usurbilgo frontoian

Kadeteak:

Lapke (Landa-Munduata),

Zazpi iturri (Gorostidi-Olano).

Seniorrak:

Elizalde-Lizeaga,

Txoperena-Urruzola.

Seniorrak:

Elizalde-Lizeaga 22

Barbajero-Santesteban 16

## **Pala txapelketa**

Asteotan jokaturiko txapelketako azken neurketak festak ofizialki hasi aurreko bezperan, ekainaren 27an izango dira, arratsaldeko 16:00etan hasita: binakako finala eta, aldez aurretik, kirol egokituen erakustaldia.

**Otar-Goxo**  
EUSKADIKO 2. AUTORE  
HANBURGESA LEHIAKETAN  
1. SARIA

**ONDO PASA SANTIXABELETAN!**

Behi txuketa, txahal entrekota,  
txuleta kostilla eta abar, eta ez ahaztu gure prestatuak:  
**OSATU ZURE MENUAK!**

ESKAERAK: 943 36 55 81 📞 677 64 27 76  
otargoxo@gmail.com

**AIZPURUA**  
**OKINDEGIA**

**OGIAK  
GOZOGINTZA  
TARTAK  
ARDOAK**

*Festetan zure mahaia ondo hornitu  
nahi baduzu, gurean baduzu aukera!*

**KALE NAGUSIA, 25 • 943 36 12 20**

Ondo pasa festetan!

# G Auto Guria s.l



**Auto Konponketa**

**Pre I.T.V.**

**Marka guztiak**

**KONFIDANTZAZKO TAILERRA!**

© 943 363 298 Zelai-haundi 11, Osinalde Pol. USURBIL

# TXAPELDUN

J A T E T X E A

**SANTIXABEL JAİETAN  
MENU BEREZIA!**

*errerbe ezazu!*

Tomate, atun eta guindilla entsalada  
Ganboiak plantxan  
Onddo eta parmesano risoto faltsua

Behi azpizuna foie saltsarekin  
Zapoa, refritoarekin eta almejekin

**32€**

Gazta tarta  
Coulanta helatuarekin  
Yogurta, marrubiekin eta maracuyá-rekin

T X A P E L A B U R U A N  
T A J A T E K O M O D U A N

MUNA LURRA KALEA 2, 20170 USURBIL, GIPUZKOA  
943 21 34 03 - @txapedun\_jatekea



Ondo pasa  
Santixabeletan!!

ERRAUSKETARIK EZ  
LURRA BASERRIA HERRIA  
BIZIRIK

# ALKARTASUNA

Usurbilgo Baserritarren Kooperatiba

Atallu industrialdea 26 943 36 11 14 [alkartasuna@usurbil.com](mailto:alkartasuna@usurbil.com) [www.alkartasuna.eus](http://www.alkartasuna.eus)

## FESTAK ERE, IZERDITAN BLAI DATOZKIGU

**H**ainbat kirol hitzorduk girotuko dituzte ate joka diren Usurbilgo jaiak.

### Bola txapelketa

Festetan hutsik egiten ez duen kirol hitzorduetako bat dugu bola txapelketa; ekainaren 30ean iragarri dute aurtengo saioa, goizeko 11:00etan hasita, nola ez, Askatasuna plazako bolatokian.

### Herri kiroletako desafioa

Herrikideak joko ezagunen bueltan (txinga, trontza, aizkora, korrika, giza proba, harri jasotzea) lehian jarriko dituen desafioa bueltan datorkigu. Ekainaren 29an, eguerdiko 12:30ean izango dugu herrikideak lehia bizian ikusteko aukera.



Ekainaren 29an larunbata, eguerdiko 12:30ean jokatuko da herri kiroletako desafioa plazan.

Ondo pasa  
Santixabeletan!

  
**Iturraldebotika**  
*Tomas Iturralde botika*  
33/22 PEZ.

*Dosifikazio Sistema Pertsonalizatua    Dermofarmazia*  
*Produktu homeopaticoak    Maisu formulak*



edaritegia  
BORDATXO

Pintxo bereziak  
Bokatak  
Plater konbinatuak

*ondo pasa  
Pantixabeletan!!*

Zubiaurrenea, 5. ☎ 943 37 10 42



APARICIO  
DEKORAZIO ETA  
PINTURA LANAK

943366059 628 88 39 43



USURBIL



**ATXEGA  
JAUREGIA**  
JATETXEA

EGUNEKO MENUA  
EGUNEKO PLATERA  
ASTEBURUKO MENUA  
KARTA  
RAZIOAK  
OGITARTEKOAK  
PINTXOAK

**ONDO PASA  
FESTETAN!**

Zumarlegi poligonoa, USURBIL. 943 371 150



943 530 337  
607 119 313

**ITZIRA**  
BARRIKUOTZAK

Ondo pasa festetan!

·gremioen koordinaketa ·berritze lanak  
·sukaldeak ·komunak ·mota guztietako obrak  
·aurrekontua konpromisorik gabe

errekatxiki 7, USURBIL itzira@hotmail.es

# EGITARAU OPAROA AURTENGO JAJETAN

## Ekainak 27, osteguna

- 16:00 Pala txapelketa: kirol egokituen erakustaldia eta binakako finala.
- 17:00/19:00 "1371-1971. Usurbil villa bezala izaten hasi zenetik 600 urte" bideo emanaldia Sutegin.

## Ekainak 28, ostirala

- 06:00 Oilasko-biltzaileen gosaria eta irteera, txosnetatik abiatuta.
- 10:00-13:00 Puzgarriak frontoian.
- 14:00 Oilasko-biltzaileen itzulera eta bazkaria.
- Ondoren, Hysteria taldearen kontzertua.
- 16:00 Diskofesta Gaztelekuan.
- 16:00 Kolore Festa Artzabalen.
- 18:00 Kolore Festako opari banaketa.
- 18:30 Jaixkipe txaranga frontoian.
- 19:00 Txupinazoa eta ikurrinaren igoera, adineko emakume zaintzaileen eskutik.
- Ondoren, herri kalejira buruhandi eta erraldoiekin.
- 20:00 Gazte txupinazoa, txosnen irekiera.
- 22:30 Erromeria frontoian: Laket.
- Ondoren, kontzertuak txosnetan: Neallta Fola, Ziztada&Rlantz eta DJ Zer?

## Ekainak 29, larunbata

- 12:30 Herri kirolak: herritarrez osatutako bi talde lehian: txinga, trontza, aizkora, korrika, giza proba, harri jasotzea.
- 13:30 Fanfarrikant Brass Band.
- 14:00 Zikiro jana, Askatasuna plazan.
- 17:30 Errekortariak eta sokamuturra Udarregin.
- 18:00 Txosnetan kontzertua: Tik Tara.
- Ondoren, Laskotxaranga.
- 18:30 Buruhandi eta erraldoiak.
- 23:00 Kontzertuak frontoian: Ameba eta Dupla.
- Ondoren, kontzertuak txosnetan: Ezpallak eta DJ Reimy.

## Ekainak 30, igandea

- Egunsentian, Hamarru elektrotxaranga.
- Ondoren, gaupaseroen argazkia.
- 11:00 Bola txapelketa.
- 12:30 Joaldunak.
- 14:00 Jubilatuen bazkaria, Atxegan.



Eguraldiak laguntzen badu, lore eta salda banaketa Joxe Martin Sagardia plazan egingo da.

- 18:00 Herriko dantzariak frontoian.
- 18:30 Poteo elegantea txosnetatik abiatuta.
- 19:00 Bertsolariak Joxe Martin Sagardia plazan: Amets Arzallus, Maider Arregi, Uxue Alberdi eta Xabat Gallettebeitia. Gai-emaila: Maite Berriozabal.
- 20:30 Erromeria frontoian: Itzal.
- Ondoren, kontzertuak txosnetan: Akaleia, Ithaka eta DJ La Fulana.

## Uztailak 1, astelehena

- 09:45 Haur eta gazteei harrera, Joxe Martin Sagardia plazan.
- 10:00-13:00 Txikienentzat puzgarriak frontoian.
- 10:00-12:00 Gaztetxoentzako erronka. (LH5etik DBH2ra)
- 10:00-12:00 Ginkana. (LH1etik LH4ra)
- 10:30-11:30 Txutxu tren. Eguneko Zentroa eta Artzabalgo Helduak.
- 11:30-13:30 Txutxu tren, Bordatxo aurretik.
- 11:00-13:00 Toka txapelketa eta Santixabel Igel Jokoa, Artzabalen.
- 12:30 Buruhandi eta erraldoiak.
- 13:00 Mojitada herrikoia.
- 13:30 Umeen bazkaria Artzabalen. (Norberak ekarrita)
- 14:30 Gazte bazkaria txosnetan.
- Ondoren, Anuk eta Elene.
- 15:00-18:00 Ur puzgarriak Artzabalen.

- 15:30-17:30 Txutxu tren, Bordatxo aurretik.
- 16:00 Mus txapelketa, Askatasuna plazan. (izen ematea 15:30-16:00)
- 18:00 Dystopia elektrotxaranga, txosnetatik abiatuta.
- 18:30 Txokolate jatea, Artzabalen
- 20:00 Tapia eta Leturia, frontoian.
- Jarraian, Bertsio Gaua txosnetan.

## Uztailak 2, asteartea

- 09:00 Esnadeia, txistulariekin.
- 12:00 Sokadantza, Joxe Martin Sagardia plazan.
- Jarraian, lore eta salda banaketa.
- 12:30 Triku taldearekin kalejira.
- 17:00 LI. Esku pilota txapelketako finalak.
- 18:00 Buruhandi eta erraldoiak.
- 18:30 Paella lehiaketa txosnetan. (Izen ematea 18:00etan)
- 19:00 Puro Relajo musika taldea Artzabalen.
- 23:00 Maskota erretzea eta traka, Dema plazan.
- Ondoren, txosnetan: Pisoo&OPH rape-roak eta Karaokea.

## Erakusketa

- 12:00-14:00/18:00-20:00 Zirriborro tailerrekoeen eskulanak ikusgai Sutegiko aretoan.

guria

guria

taberna

**ONDO PASA JAIETAN!**

PLATER KONBINATUAK,  
HANBURGESAK,  
ENTSALADAK, OGITARTEKOAK,  
RAZIOAK...

**PUNTAPAX 12, USURBIL 943 55 93 35**

**AIALDE  
BERRI**  
SAGARDOTEGIA  
© 943 36 50 31

*Ondo para Santixabeletan*

**JARRAI IEZAGUZU  
SARE SOZIALETAN**


USURBILGO ALBISTEAK KLIM BATEAN

ARGAZKIAK

ALBISTEAK

**www.noaua.eus**

@noauastekaria @noaua Noaua Aldizkaria @noauati



2024

# Santixabelak

EKAINAREN 27.rik  
UZTAILAREN 2.rik



Usurbilgo Udala



Antolatzailea:  
Santixabeletako  
jai batzordea